

Eskolaren mugak hizkuntza biziberritzeko saioan

Joshua A. Fishman

Hizkuntza biziberritzeko pauso-urratsen jokaera integratu eta mailaz mailako baten aurrerapide gisa erabili behar da eskola. Hizkuntza ezin du eskolak berekabuz eta bere eragin hutsez biziberritu. Haur txikiengan hizkuntza biziberritzeko ahalegin nagusi hori familia-azuzo-bizigiroek eratzen duten konplexu osabetezkoak soilik eraman dezake aurrera. Ahalegin horretan beraz, prozesu askoz zabalago baten zatia baino ez da eskola, prozesu osoaren baitan kontu handiagoz uztartu behar dena.

Artikulu hau Euskal Eskola Publikoaren I Kongresuko ponentzia izan zen eta Eusko Jaurlaritzak horretaz kaleratutako liburuan argitaratu zen. Hezkuntza Sailaren eta J. A. Fishman jaunaren beraren baimen bereziz berrargitaratu da hemen.

Schools must be considered as a movement geared towards an integrated and levelled performance in the process of enlivening the language. Schools, by themselves and by their single influence, are not able to enliven the language. It is only the complex formed by the family-neighbourhood-environment (which complement each other) that can fulfill that main effort to enliven the language of young children. Thus, schools form only a small part of that effort involving a much wider process, and they must be linked more carefully within the whole process.

This article concerns a point raised during the 1st Congress of the Basque Public Schools and it was published in a book edited by the Basque Government. It has been re-edited here with special permission from the Education Department and Mr. J. A. Fishman himself.

Hizkuntza beste asigaturen antzekoa da, eta aldi berean desberdina

«Gurasoetatik seme-alabetarako transmisio-moldeak behar bezala funtzionatzen ez badu, Euskal Autonomi Elkarteko haur gehien-gehienak euskaraz ezer askorik jakin gabe iritsiko dira eskolara, belaunaldiz belaunaldi. Eta, belaunez belaun, euskara "errekuperatzeko" saio bera egin beharko dute, juxtu aurreko belaunaldia iritsi zen puntu berera iristeko»

«Askok uste du haurren eskolaketa hobetuz gero sendo lagun diezaiokeela horrek gizarte bati belaunaldiz belaunaldi gero eta bizkorrago leku berera daraman gurpil zoro hori hausten. Baina, normalean, uste hori ez da oso errealista»

Hizkuntza bat ikasle gehienen ama-hizkuntza ez denean, zenbaterainoko eragina izan dezake eskolak hizkuntza horren biziberritzean? Zenbateko eragina izan dezake eskolak berori goiz eskuratzen, jariotasuna lortzen edo belaunez belauneko transmisioa sustatzen? Gurasoetatik seme-alabetarako transmisio-moldeak behar bezala funtzionatzen ez badu, Euskal Autonomi Elkarteko haur gehien-gehienak euskaraz ezer askorik jakin gabe iritsiko dira eskolara, belaunaldiz belaunaldi. Eta, belaunez belaun, euskara "errekuperatzeko" saio bera egin beharko dute, juxtu aurreko belaunaldia iritsi zen puntu berera iristeko. Nolanahi ere hizkuntza biziberritzearen xedea ez da soil-soilik hizkuntza eskuratzea eta eskola barruan erabiltzea, horrezaz gain gizarte-beharretarako erabilgarritasuna eta belaunez belauneko transmisioa areagotzea baizik (eta, horrela, belaunaldi bakoitza aurrekoa baino zertxobait abiapuntu egokiagotik abiatu ahal izateko bideak jartzea).

Askok uste du haurren eskolaketa hobetuz gero sendo lagun diezaiokeela horrek gizarte bati belaunaldiz belaunaldi gero eta bizkorrago leku berera daraman gurpil zoro hori hausten. Ez irakasle eta hezkuntz adituen artean soilik (horientzat lanbideak berak sortutako ustea da hori, azken finean), baina baita hizkuntza gaietara dedikatzen direnen artean edota soziolinguisten artean ere, uste hori aski zabaldua dago. Uste hori, aldi berean, beste fede baten islada da: hezkuntzak gizartearen gaitzak sendatzeko duen berezko balioaren fedearen islada. Aldaketa sozial moderno eta demokratikoak sustatu duen gizarte-mota baten desiozko alboemaitza ere bada uste hori. Irakasleek hezkuntzaren efikazian duten sinesmena beharrezkoa izan daiteke, ez bakarrik beren buruaren kontzeptu positiboa mantentzeko, baita beren zentzua gordetzeko ere. Baina, normalean, uste hori ez da oso errealista: beste horrenbesteko okerrestea egingo luke mediku batek betiko bizi-elixirra berekin daukala uste izango balu.

Badirudi, bestalde, irakasle ez direnek irakaskuntza goiztiar formalean duten konfidantza bitxi hori, gizartearen gaitz guztien sendagai baillitza, beste nondipait datorrela. Antza denez, konfidantza hori gizarte-aldakuntza demokratikoak berez bultzatzen duena da, eta hiru faktorek sortarazi: bi faktore orokorrek, eta hizkuntza biziberritu nahiarekin zerikusia duen beste hirugarren batek. Eskolari gero eta garrantzi

handiagoa ematen zaio gizartearen eraberritze eta gazteriarren portaera-moldatzaile gisa. Aldi berean, eta horren parez pare, familiak, elizak, gazte-mugimenduak edo soldadutzek gazteen akulturazioan duten pisua txikitu egin da. Gizarte industrial moderno, laiko, urbano eta demokratikoetan eskola da, izan, belaunaldi gazteengan eragiteko gelditzen den medio ekonomiko eta aldi berean eraginkor bakarra, egunean hainbat ordutan eta haurtzaro ondotik gaztaroko azken urteetaraino bere eragina zabaltzen duena. Halako zentzu batean eskola, eragile sozial, moral eta kognitibo zabalena izateaz gainera, azken erremedio moduko eragile sozial, moral eta kognitibo ere bihurtu da. Kontsiderazio hauetarik (beste erakunde tradizionalen indar-galtzea eta planifikatzaileei eskolak, azken eragile gisa, eskaintzen dien fidagarritasuna) bakar bat ere ez da, ordea, eskolaren efikaziaren garantia: ez da halakorik, batez ere (laster azalduko dugunez) eskolaren beraren ahalmena eta eginkizuna funtsetik aldatu eta ahuldu egin direnez gero.

Hizkuntza biziberritzeko eskolagan jartzen den konfidantza hori indartzen duen beste faktore bat ere bada tartean: hizkuntzaren eta beste asigaturen (matematika, zientzia, etab.) artean diferentziarik egiten ez duen ikuspegia, hain zuzen. Beste irakasgai horiek, ordea, eskolan oinarrituak dira eta "hutsetik" hasita ikasten ditu bertan belaunaldi orok.

Eredu honek kontuan hartzen ez duena zera da: batetik, hizkuntza komunikazio-tresna dela funtsean; eta, bestetik, nortasun sozial eta pertsonalaren osagai dela mintzaira: ezaugarri hauek ez dituzte ordea, biztanleriaren zatirik handiengan, ez matematikak eta ez zientziak betetzen. Letretako arloan bertan ere, literatura eta historia bezalako irakasgaiak, jende-multzo zabalarentzat nortasun-ikur bihurtzeko arren, ez dira berez pertsonen arteko komunikabide: ez eta gai horietako profesore eta aditu aintzindarien artean ere.

Gogoan izan, edozein modutan, honako hau: bestelako irakasgai hauek ere, eskola-garaia pasatu ondoren buruan gordeko badira (eta are eskola-garaian zehar ikasi eta menderatuko badira), eskolatik kanpora biziki indartu behar izaten dira gehienetan.

Gizarte bidezko berrindartze horren beharra bizpahiru aldiz handiago da bigarren hizkuntza bat eskuratu eta gordetzeari dagokionean; eta berdin lehenengo edo bigarren hizkuntzan barietate-aldaera desberdinak menderatzeari dagokionean ere. Are gehiago: hizkuntzak komunikazio eta identifikazio-lanetan oinarritzeko zeregina duelako, eskola bi-

«Hizkuntza biziberritzeko eskolagan jartzen den konfidantza hori indartzen duen beste faktore bat ere bada tartean: hizkuntzaren eta beste asigaturen (matematika, zientzia, etb.) artean diferentziarik egiten ez duen ikuspegia, hain zuzen. Eredu honek kontuan hartzen ez duena zera da: batetik, nortasun sozial eta pertsonalaren osagai dela mintzaira: ezaugarri hauek ez dituzte ordea, biztanleriaren zatirik handiengan, ez matematikak eta ez zientziak betetzen»

«Hizkuntzak komunikazio eta identifikazio lanetan oinarrizko zeregina duelako, eskola bidez eskuratutako hizkuntzotan hitz-erorri erraza lortzeak eta hartan irauteak gehiago zor die azkenean eskolaz kanpoko eta eskola-urteak bukatu ondoko faktoreei eskola barneko faktoreei beraiei baino»

«Eskolak berebiziko garrantzia du sarritan bigarren hizkuntzaren eskuratzeari ekiteko; bai eta, eskolan gaiari behar adinbateko garrantzia emanez gero, eskola-urteetan zehar bigarren hizkuntz horretan halako maila bateko hitz-erorria lortzeko»

dez eskuratutako hizkuntzotan hitz-erorri erraza lortzeak eta hartan irauteak gehiago zor die azkenean eskolaz kanpoko eta eskola-urteak bukatu ondoko faktoreei (hizkuntza hori erabiltzeko aukerari, erabileraren balio funtzionalari eta antzeko faktoreei) eskola barneko faktoreei beraiei baino (ikas-torduei, irakasmetodologiei edo ikamaterialei, kasu). Matematikari dagokionez, eskolak agente edo eragile independente baten moduan joka dezake (bistan dago halere eskola-arduradunek hala uste izatea ez dela ikasle gehienek kasuan guztiz bidezkoa, eskola bukatu ondoren gizartean algebra erabili beharrik ez dutenek algebra-ezagupenok oso azkar galtzen bait dituzte benetan). Baina bigarren hizkuntzari eusteari edo lehenengo edo bigarren hizkuntzan aldaera desberdinak menderatzeari dagokionez, gauzak ez dira horrela: eskolak ezin du, arestian emandako azalpenongatik, inolaz ere halako pretentsiorik izan.

Eskolak zeregin garrantzitsua izan dezake hizkuntz ikaskuntzan, ikasleei beren lehen urratsetan eta osabidean ikasketa horretan lagunduz

Arestian adierazitakoak ez du esan nahi eskolak zereginik ez duenik hizkuntz ikaskuntzan orohar, edota hizkuntza biziberritzeko ahaleginetan txertatutako hizkuntz ikaskuntzan bereziki. Hain zuzen ere, eskolak berebiziko garrantzia du sarritan bigarren hizkuntzaren eskuratzeari ekiteko; bai eta, eskolan gaiari behar adinbateko garrantzia emanez gero, eskola-urteetan zehar bigarren hizkuntz horretan halako maila bateko hitz-erorria lortzeko. Antzeko garrantzia du eskolak (edota handiagoa, agian) ikasleak alfabetatzerakoan, irakurtzeari zein idazteari begira eta lehen hizkuntzaz zein bigarrenez denaz bezain-batean. Horrezaz gain, eskolak funtsezko eginkizuna du: ahozko komunikazioan bereziki, ikasleen hizkera-molde edo hizkuntz barietateak osabete egin ditzake eskolak, lehen hizkuntzen kasuan etxetik eta auzotik ekarritako mintzaireri eta, bigarren hizkuntzen kasuan, besteren elkarrizketen imitazioaz hasiera-hasieran eskuratu direnei gero eta hizkuntz aldaera landuagoak erantsiz. Azkenik, eskolek, bere arreta hizkuntza jakinetan ipintzen duten heinean eta horietaz eztabaidak eta bestelako ekintzak era egokiz bultzatzen dituzten neurrian, hizkuntzekiko jarrera sozialen eta apostu esplizituen indar-emaile nabarmen dira, hizkuntz ikaskuntza eta erabilpenerako kontestu ideologiko, historiko, moral eta kulturala eskainiz batez ere.

Gazte gehientzat, berez, askok uste baina inork gutxi formula dezakeen gertaera honen lehen adierazle da eskola: hizkuntza ez dela huts-hutsik komunikazio-tresna, baizik eta berarekin lotuta dagoen etnokulturaren hezur-mamitzaile, eragile eta integratzaile, horren barne-muina agerian jartzen duena ere baizik.

Hala ere, hizkuntz arloan eskolak izan dezakeen indartze-eraginaren alderdi guzti hauei begira (bigarren hizkuntza eskuratzea eta horretan halako jariotasun-maila bat lortzea, lehen eta bigarren hizkuntzetan alfabetatzea, lehen eta bigarren hizkuntzetako aldaera-gehikuntza eta hizkuntzaren jakinaren gainera kontestualizazio ideologiko, historiko, moral eta kulturala, alegia), eskolaz kanpoko eta eskola-aldiaren ondoko loturak eta indargarriak behar-beharrezkoak ditu eskolak, ikasleak eskolan jasotako trebetasun eta ezagutza horiek indartuz joango badira, bere buruari eutsiko badiote eta eragile beregain operatiboak bihurtuko badira. Bi dira, oinarritz, gizarteak bere eskolei eskain diezazkiekeen lotura eta indargarri motak: sentipenetan eta emozioetan oinarritutakoak, batetik; eta, bestetik, balio instrumental eta praktikoe-tan finkatuak. Sentipen-emoziozko indartzaileen artean, intimitate-alor desberdinetan eragiten duten pertsona ezagunen, adiskideen eta belaunaldi guztietako familiartekoen maitasun-giroa, zaintze-babesa eta oneritzia aipatu behar dira. Eskola-saioen indartzaile instrumental-praktikoen artean, aldiz, honako besteok: gizarte-bizitzak eskaintzen dituen ordain-sariak, lanpostu eta posizioak eta, orohar, gizarte-bizitzan izandako arrakastaren eta hartan eskuratutako lorpenen seinale nabari desberdinak.

Esan beharrik ez dago noski, eskolak gizarteko bi indargarri-mota horiek susta ditzakeela; baina laster samar, eta geroz eta era nabarmenagoan, ikaslea lehen mailako irakaskuntzatik hirugarrenekora bidean ari den neurrian eskolan eskuratutako trebetasun-ezagutza horien indargarri arrakastatsuenak ez daude (ez eta hurrik eman ere) eskolaren esku soilik. Zentzurik beteenean, beste eragile askoren esku dago lorpen horiei eustea eta lorpenok hobetzea, eta ez bakarrik eskolaren mende.

Familiagiroan, auzo mailan eta gizarte-bizitzako elkar-giroan indar egin beharra dago, hizkuntza biziberritu nahi bada

Gaizki dauden hizkuntzak biziberritzeko han eta hemen egiten diren saio gehienak bat etorri ohi dira puntu jakin

«Eskolak funtsezko eginkizuna du: ahozko komunikazioan bereziki, ikasleen hizkera-molde edo hizkuntz barietateak osabete egin ditzake eskolak, lehen hizkuntzen kasuan etxetik eta auzotik ekarritako mintzaireri eta, bigarren hizkuntzen kasuan, besteren elkarrizketen imitazioaz hasiera-hasieran eskuratu direnei gero eta hizkuntz aldaera landuagoak erantsiz»

*«Gazte gehientzat,
berez, gertaera
honen lehen
adierazle da eskola:
hizkuntza ez dela
huts-hutsik
komunikazio-tresna,
baizik eta berarekin
lotuta dagoen
etnokulturaren
hezur-mamitzaile
eragile eta
integratzaile, horren
barne-muina agerian
jartzen duena ere
baizik»*

*«Eskolan
eskuratutako
trebetasun-ezagutza
horien indargarri
arrakastatsuenak ez
daude (ez eta hurrik
eman ere) eskolaren
esku soil-soilik.
Zentzurik beteanean,
beste eragile askoren
esku dago lorpen
horiei eustea eta
lorpenok hobetzea,
eta ez bakarrik
eskolaren mende»*

batean: etxegiroan, auzo-inguruan eta bizi-esparru amankomunetan eginkizun gutxi (edo bat ere ez) duen hizkuntza bat belaunez belaun transmitituko den ama-hizkuntza bihurtu nahi izaten dute biziberritze-lan horretan saiatzen direnek, bidebatez hizkuntza horri gizarte-bizitza zabalean funtsezkoak diren beste hainbat eginkizun egotziz. Etxegiroan, auzoan eta jende artean bere onetik aterata (edota, Iberiar Penintsulan euskaldunek, katalanek eta gailegoek bederen esan ohi dutenez, "normalizatu" gabe) dagoen hizkuntza ezin belaunez belaun transmiti liteke, ama-hizkuntza gisa. Transmi-siobide hori galdurik duen hizkuntza orok, bere hiztun helbue-tzat zeinahi "reward structure" edo ordainsari-egitura duela-rik ere, bestelako bidetik jo beharra dauka bizirik iraungo badu: belaunaldi berriak *hutsetik* abiatu beharko du nahi eta nahi ez, Eskolaurrera iritsi aurretik; eta hortik aurrera bigarren hizkuntza gisa ikasten hasi beharko du "bere" hizkuntza hori, urra-tsez urrats. Erakundeen berariazko zaindaritza beharko du hizkuntza horrek (eta zaindaritza horren zordunago izango da, zinez, txiki-txikitango intimitatea eta identitatea eratzen duten prozedurena baino), belaunaldi berriak hizkuntza hori ikasiko badu eta berorri eutsiko badio. Etxe/auzo/bizi-inguru-ne naturalean bizi ordez huts-hutsik erakunde artean hazten eta hezitzen diren neska-mutilek arazoak eta kalteak izan ohi dituzte, bai beren sentiera-alorrean eta bai ezagumendu-sailean ere. Era horretako babes-ingurumenduan bizi diren hizkuntzek ere antzeko ondorioak jasan ohi dituzte.

Are gehiago: eskolan, lanean, komunikabideetan eta go-bernuan baizik erabiltzen ez den hizkuntza (edo kohizkuntza) ez da horrenbestez, besterik gabe, hurrengo belaunaldiaren ama-hizkuntza (edo ama-hizkuntzetarikoa) bihurtzen. Horre-lako pausoa emango badu bestelako baldintzok behar ditu orobat: hasieran eskola-hizkuntza (edo eskola-kohizkuntza) bakarrik izandako horrek ondoren bere kokagune segurua aurkitu behar du. Kokagunean non? etxegiroan, auzo hurbi-lean eta luze-zabalagoko bizi-inguruetan (eta berauen eten-gabeko eraginez) gertatzen diren txiki-txikitango, eskolara aurretiko sozializazio-prozesu barrenkoi-intimoetan. Eskola-tik bakarrik ezin espero liteke konponbiderik: etxe-auzo-bizi-giro multzo korapilotsu horren falta, bere funtzionamendu aldrebasa edo are kontra-erasoa ezin neutraliza dezake, alegia, neurri on batean multzo-sail konplexu horren zati den eta arrakastarik izango badu zuzen-zuzen haren beharrea dagoen eskolak. Era berean, langiroak, komunikabideek eta gobernu-alorrak ezin dituzte etxe-auzo bizigiro multzoaren hutsuneak berdindu eta, ondorioz, ezin dute gurasoen ordez

edo *in loco parentis* jardun. Langiroak, komunikabideek eta gobernuak matematikaren edota zientzi jakintzaren alde egin dezaketen hori ezin dute neurri berean hizkuntza biziberritzearen faboretan egin, ama-hizkuntza ez den mintzaira bat ama-hizkuntza (edo ama-kohizkuntza) bihurtuz: matematika eta zientzi jakintza ez bezala, ama-hizkuntza belaunez belan transmititu behar izaten da izan ere: txiki-txikitandiko intimitate eta identitate-lanketaz, alegia.

"Maila altuagoko" gizarte-eragile guzti hauek (lan-esparruak, komunikabideek, administrazioak...) egin dezaketen gauza bakarra zera da: bai baliabideak eta bai atentzioa zuzenkiago familia-auzo-bizigiro kate-loturan zentratzen laguntzea; zentratze horrekin batean, multzo segida horrek (eta horrek bakarrik) hizkuntzen biziberritze-lanerako dakartzan arazo-istiluak eta aukera berriak azpimarratzeko balio izan dezakete noski gizarte-eragileok.

Badakigu ordea hiri-giroko modernizazio-bideek geroz eta traba gehiago jartzen diotela eskolari, beronen helburuak lortzearen familia-auzo-bizigiro kate-korapiloaz baliatzeko. Eta horra: traba horiekin batera, modernizazio-bideok beste horrenbeste eragozpen sortzen dute zoritxarrez etxe-auzo-bizigiro funtsezko lokarri-multzo horretan mintzaldatze-fenomenoari aurre egin eta hizkuntzaren biziberritzea bultzatzeko.

Familiaren indargabetze-bazterreratzea; etxe-eskolen arteko lokarria burokraziaz desegitea

Ezaugarri bi ditu, besteak beste, hiri-bizitza modernoak: batetik, haurren sozializazio-lan osoan familiak geroz eta zeregin ahul-bazterrekoagoa izatea; eta, bestetik, familiari laguntzeko sortutako gizarte-eragileen zatikatze edo desegite burokratikoak. Hirigintza modernoaren emaitzetariko bat, mundu mailan, honako hau da: aita eta amarekin (biekin alegia) bizi diren eskola-adineko haurren proportzioa geroz eta murriztagoa izatea. Horrelako gertaerek, jakina, asko zailtzen dute hizkuntzaren biziberritze-lana. Aita edo ama gabeko familietan hazten da geroz eta haur gehiago: eta, ondorioz, berekin hitzegingo duen, berari lagunduko dion eta berarengan eragingo duen aita edo ama horren faltan bizi da geroz eta haur gehiago. Ez hori bakarrik, gainera: geroz eta kasu gehiagotan ume horiek "eskueran" dituzten gurasoek (guraso biek edo bietako bakar horrek) etxetik kanpora lan egiten dute; eta haien nola-halako ordezkotza egingo duen gurasoizunik ere (aiton-amonarik, izeba-osabarik, aldame-

«Transmisiobide hori galdurik duen hizkuntza orok, bestelako bidetik jo beharra dauka bizirik iraungo badu: belaunaldi berriak hutsetik abiatu beharko du nahi eta nahi ez, Eskolaurrera iritsi aurretik; eta hortik aurrera bigarren hizkuntza gisa ikasten hasi beharko du "bere" hizkuntza hori, urratsez urrats. Erakundeen berariazko zaindaritza beharko du hizkuntza horrek, belaunaldi berriak hizkuntza hori ikasiko badu eta berorri eutsiko badio»

«Eskolan, lanean, komunikabideetan eta gobernuan baizik erabiltzen ez den hizkuntza (edo kohizkuntza) ez da horrenbestez, besterik gabe, hurrengo belaunaldiaren ama-hizkuntza (edo ama-hizkuntzetarikoa) bihurtzen»

«Langiroak, komunikabideek eta gobernuak matematikaren edota zientzi jakintzaren alde egin dezaketean hori ezin dute neurri berean hizkuntza biziberritzearen faboretan egin, ama-hizkuntza ez den mintzaira bat ama-hizkuntza (edo ama-kohizkuntza) bihurtuz»

neko bizilagun arduradunik) ez dago. Estatu Batuetan, gaur egun, eskola-adineko haurren artean %7 besterik ez dira honako bi baldintzok betetzen dituztenak:

-Familian aita eta ama izatea, ez bietako bat bakarrik.

-Bietako bat bederen (garai batean ama, normalean) etxetik kanpora lanera ez joatea.

Nere seme-alaben belaunaldian, urrutirago gabe, salbuespena ez baina arau normal-normala izan da familiok bi baldintza horiek xuxen kunplitzea.

Eskola-adineko haurrak, gero eta gehiago, gizartearen eraginpean daude; familiaz eta auzoaz kanpoko eraginguneen mende egon ere, gainera. Eskolaratu baino lehen (jaio eta handik egun gutxira, egia esan) haurtzaindegien esku uzten dira umeak normalean; eta, gero eta sarriago, batz bestee egunean 8 orduz eta astean bost egunez haurtzaindegian egon ohi dira haurrok, nahi izanez gero asteburuetan ere bertan utz daitezkeelarik. Eskola-adineko haurrok, gero eta gehiago, eskola-ondoreneko orduak eta asteburuak jolas-taldeetan igarotzen dituzte, etxeko lanak egiteko laguntzailerekin, *hobby*-etarako monitoreekin (hauengandik musika, konputagailu eta kirolen arloko heziketa, praktika eta laguntza jasoz), jantokiko zerbitzukoekin eta osasun arloko profesionalekin (direla mediku, dentista, psikologo...). Fondo publikoak erabiltzen dira, lehen familiarenak izandako erantzunkizunon besterenganatze honi familia behartsuetako haurrek "etekina" atera diezaioten, erdi eta goi-mailako familietakoekin adinbat etekin edo gehiago. Agian ezin da oraindik esan lokarri-desegite edo sakabanatze honek zer eragin izango duen haurraren oinarrizko nortasunean eta bestee-kiko harremanetan; baina dagoeneko nabaria da nolana ere eskola-sistema handi gehienetan ikastetxeak ez duela ziurtaturik familiaren laguntza, lankidetzeta eta babesa eskolabelburuak lortzeko bidean, eta gainera ezin duela garai batean zuen eraginik izan familiarengan.

Azken urteotako bilakaera honek are gehiago ahuldu du eskolak hizkuntza biziberritzeko izan dezakeen balioa. Horra zergatik: ez bakarrik eskolaketa berez familiako hizkuntz transmisioaren ordezko ez delako; baizik eta, ez izateaz gainera, eskolaren eta transmisio-iturri izan ohi den famili esparruaren artean lehen baino eragile gehiagok parte hartzen dutelako. Monitore, zerbitzari, espezialista eta laguntzailere-multzo handi batek garatu eta eragiten du gaur egun,

arrakasta handiarekin sarritan, gazteen hizkuntz trebetasun eritzi, balio eta jarreretan; eragile guzti horiek eskolaz eta familiaz kanpokoak dira ordea, eta sarritan auzoz kanpokoak ere bai. Horregatik, hizkuntza biziberritzearen aldekoek eta agintariek ez dituzte beren ikusmirak soil-soilik eskolan edota familia-auzo-bizigiro multzo-segidan (garai batean ulertzen zen moduan hartuta) jarri behar, baizik eta hizkuntza hori erabiltzeaz gainera gazteen hizkuntz erabileran, hizkuntz gaitasunean eta hizkuntz jarreretan eragiten duen monitore, espezialista, zerbitzari eta laguntzaile-multzo berri zabal horrengan orobat.

Azken hitz

Hizkuntza biziberritzeko pauso lehen, azken eta bakartzat hartu izan da eskola batzutan; biziberritze horretarako pauso-urratsen jokaera integratu eta mailaz mailako baten aurrerapide gisa erabili behar da ordea eskola.

Haurrek ikastetxean ordu asko ematen dutela-eta, eskolagan itxaropen gehiegi jartzeak etsipen-bidea dakar berekin, garai bateko Irlandako esperientziak eta gaur eguneko Friasiakoak eta Maorienak argi asko erakusten dutenez.

Eskola indartzearen nagusiki eskolaondoko sari-sistema eraginkorrak erabiltzeak gauza bat dakar berekin: ez da kontuan hartzen sari-sistema horrek ere familia-auzo-bizigiroarekin loturik dagoen belaunez belauneko transmisio-bidean eragin beharra duenik, hizkuntza benetan biziberritu ahal izateko. Lanerako euskara eskatzeak ez dakar berekin, besterik gabe, euskara belaunez belaun transmititzea: horretarako, langile euskaldunek elkarrekin ezkondu behar dute eta haurrak euskaraz hazi behar dituzte. Eta ez nolana, aski baldintza jakinetan baizik: euskaraz hitzegiten den auzoetan, euskara gero eta gehiago erabiltzen duten auzo-organismoekin (i.e. monitore, espezialista, zerbitzari eta laguntzaile euskaldunekin) eta euskara zinez azpimarratzen duten eskolara bidaliz.

Hizkuntza ezin du eskolak berekabuz eta bere eragin hutsez biziberritu. Haur txikiengan hizkuntza biziberritzeko ahalegin nagusi hori familia-auzo-bizigiroek eratzen duten konplexu osabetezkoak soilik eraman dezake aurrera; eta konplexu hori bera ere, hiritartze eta modernizatzeko prozesuek aurrera egin ahala, gero eta konplexuago ari da bilakatzen. Ondorioz, orain arte hezitzaileek edota hizkuntza biziberritzearen aldekoek eginkizun horretarako normalean beharrezko jo duten prestakuntza baino askoz prestaera hobea

«Eskola-adineko haurrak, gero eta gehiago, gizartearen eraginpean daude; familiaz eta auzoaz kanpoko eraginguneen mende egon ere, gainera. Azken urteotako bilakaera honek are gehiago ahuldu du eskolak hizkuntza biziberritzeko izan dezakeen balioa.

«"Maila altuagoko" gizarte-eragile guzti hauek egin dezaketen gauza bakarra zera da: bai baliabideak eta bai atentzioa zuzenkiago familia-auzo-bizigiro kate-loturan zentratzen laguntzea»

eskatzen du haur txikiekiko ahalegin horrek.

Eskolak badu, noski, bere zeregina hizkuntza biziberritzeko ahaleginean; baina behar bezala ulertuz du zeregina, ez bestela. Prozesu askoz zabalago baten, oso konplexua den prozesu baten zatia baino ez da berau; eta askoz kontu handiagoz uztartu behar da prozesu osoaren baitan. Egiteko zaila da hori benetan, batez ere biziberritze-lana bera lehen baino askozaz konplexuago eta zatikatu-sakabanatuagoa bihurtu zaigunez.

Joshua A. Fishman

*New Yorkeko Ferkauf University of Yeshira-ko
Ikertzaile-Irakasle Gorena Gizarte Zientzietan, Emeritua*

*Highest ranking researcher-teacher, emeritus, of Social
Science of Ferkauf University of Yeshira in New York*

Itzultzailea:
Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzua